

JUAN SAN MARTIN, EUSKALTZAINDIKO IDAZKARIA

Euskaltzaindikoak illean behin bildu ohi dira, ta billera ondoren Donosti bertakoak ez diranak (eta hoietako batzuek ere bai) «Aurrera» jatetxera joaten dira bazkalzera. An arkitu nituan joan daneko ostiral batean mugaz-auzko Larzabal antzerkilari trebea ta Bidasoz onuzko: Satrustegi, Onaindia, Berrondo, Garmendia (Xalbador), Aita Intza, Beobide, Zeleta, Lizundia ta San Martin bera. Euskaltzaindiko idazkaria 47 urteko gizon gaztea da; eten gabe lanean aritzeko gizona; kemen guziak euskerari eskeiñiak dauzkanez, artu du alde honetatik gure izkuntzak irabazi ederra.

Orain arte batasunaren alde egin diran lanak ontzat arzen dituan jakin nahi izan dut lehen.

— *Egin diran guziak izan dira onuratsuak —erantzun zidan—. Batez ere azken urte hoietan egin diranak ondo finkatuak utzi ditu batasunerako egin diran lehen urratsak. Orain arte morfolojian zenbait partetan eta ortografian egin dugunari jarrai beharko diogu zerbait egingo badugu. Batez ere Arantzazun azaldu ziran ponentzietan egin zan lanari. Gero, itzen aldetik egin behar dugun batasunerako, Lafitteren oiñarrietan Mitxelenak eratutako ia bi milla itzen iztegia artu dugu oiñ-azpi bezela. Lendabizi lan hoiek bukatu behar ditugu, ta aditzaren beste egin-beharrari geroxeago ekin beharko.*

— *Ekin, diozu; don Manuelek aitatzen duan Euskaltzaindiaren «neutralidadea» ez zaizu, beraz, gogozko.*

— *Ez, zeren kontu hoietan «neutralidadez» jokatzea Euskaltzaindiaren araudiaren 5-gn. puntuaren kontra joatea*

da. Araudiaren bere lehen partearen 5-garren kapituloan, 2-en zatian, argi jartzen du Euskaltzaindia batasuna sortzera ahalegindu behar dela.

— Beraz, Euskaltzaindiak onartu behar dituan itz hoiek erabaki, itz hoiien ortografiari dagozkien normak betiko onartu ta gero honen zabalkundea egiten ahalegintzea izango litzake lehengo lana. Ondo oldoztuta artuak izan ahal ziran oiñarri hoiek?

— *Bai, bai —dio bizi-bizi San Martinek— lan guzi hoiek Euskaltzaindiaren ardurapean artuak izan dira, ta ez nolainai, gero.*

— Nola, ba?

— *Gertakizunak bata-bestearen ondoren, sortu diran bezela, esaten ahaleginduko natzaizu: 1) Euskaltzaindia aspaldi dabil batasunaren lanak aztertu ta zuzendu nahirik; izan ere araudiak berak hori eskatzen du: euskera literarioaren batasuna; eta lehen, Campion eta Broussainek egin zuten 1920-an azterketa bat; horren berri eman duzu zerorrek Lekuona jaunarekin izan duzun izketaldian. 2) Urrungo ekiñaldian idazleak aurreratu zitzaizkion Euskaltzaindiari, ta 64-an Euskal Idazkaritzak eta Baionan ortografiaz artu zituan erabakiak guztiz onartuak izan ziran, eta gero, 1968-an «Gerediaga» elkarteak idazle guziei Ermuako deia egin zien eta batzar bat antolatu zan (Jakin-en azaltzen da, maiatzaurriako 31-32 zenbakian: «Zenbait iritzi batasunari buruz», J.A. Letamendiak; «Euskeraren batasuna», Salvador Garmendiak; «Euskal joskera», Imanol Laspiur-ek; «Literatur-euskera batasun baten aldera», Aingeru Irigarayk; «Batasunaren bideak», Pierre Lafittek, eta, azkenik, «Gerediaga elkarteak eratutako biltzar-kideei», Txillardegik eskutitzez bialdutako lana); ta 4) «Arantzazuko Billera».*

— Esan zaidazu, mesedez —galdetu nion— Arantzazun zer gertatu zan.

— *Arantzazun ez genitun behar bada, batzuek dioten bezela, «egitazko erabakirik» artu. Asteko kontseillua bai; an Euskaltzaiñak aho batez ontzat eman zuten oiñarrizko agiria, eta biltzartueri irakurtzen denak txalo beroz artu zutena Euskera aldizkariaren (XIII, 1968) 250-go orrialdean dator.*

— Baiñan, ala ere, han ez omen zan egitazko «erabakirik» artu.

— *Egitazko erabakirik ez zala artu? Euskaltzaindiak garbi asko errekomendatu zituan asierako bide batzuek. Eta besteentzat errekomendatzen duena berak bete beharra du. Euskaltzaindiaren babesean danok onartutako asmoak izan ziran; ain zuzen, oraintxe atera berri ta aitatu berria dugun Euskera aldizkariaren alean agertzen dira, Euskaltzaindiaren babesean, noski: «Arantzazuko biltzarrak». «Euskeraren batasuna», M. Lekuonak; «Literatura euskeraren batasunari buruzko biltzar nagusiak Arantzazun»; «Batasun buruz bibliografia», A. Luis Villasantek; «Deklinazio», S. Garmendiak; «Euskerazko itz berriak», Zatarain-dar Anbrosik; «Antziñako euskal hitzen formaz», A. Luis Villasantek; «Ortografia», Luis Mitxelenak; «Batasunari batzuk agurka ta beste batzuek aurka»; «Elkarhizketak»; «Azken-itz», M. Lekuonak; «Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria», Euskaltzaindiak berak; eta, azkenik: «Batasunerako hiztegia», batzuen laguntzaz (bereziki Lafittenaz) Mitxelenak eratu.*

— Aurrera jarrai baiño lehen, Juanito —esan nion—: emen, Euskaltzaindiaren aldizkari bertan, *Euskeran*, ematen diran arau, norma, guziekin konforme ahal zera?

— *Ponentzietako normekin, bai, noski. Idazleak toki guzietan jarraitzen dituzte izkuntzalarien kontseillu eta normak; gurean ezin genezake bestera jokatu.*

— Beste bat: euskeraren batasun billa gabiltzanok oso maiz

«euskera *literarioa*»ren asmoa erabiltzen dugu elburu bezela; nere ustez, literaturako erabilli behar dugun euskerak izan behar luke askatasun aundienekoa; arte-izkuntza baita; don Manuel Lekuona ere honetan konforme dago; nere ustez, beste era batera aitatu behar genduke arazo hau; *Jakin*-en ikusi dut ondoen etorriko litzaioken izentatzeko bide bat: «Euskera *idatziaren* batasuna»; honek *idazten* dan euskera guzia behartuko luke, baiñan *literatura bereziki aitatu ta behartu gabe*, ta gainontzeko izparringi, ikastola-liburu ta beste zabalkunde lanetan erabilli behar dugun idatzi-bideko euskera guzia aitatuaz.

— *Arrazoi duzu; hor ere konforme natzaizu; ala behar du izan. Literario batasunaren izena ondo ez badago ere, orrela erabiltzen oituak gaude, Euskaltzaindiaren araudian ola jartzen duelako.*

— Orain, Arantzazun garrantzi aundiz gertatu zan lanari buruz, ba: nola izan zan lan hori eratua?

— *Arantzazun joan dan urteko (1968) urriaren 3, 4 ta 5-ean, Euskaltzaldiak deituta, euskeraren batasunak kezkatuta, bildu giñan gizon pillo bat. Lendabiziko egunaren goizean 72, ta gaberako 95; geroko egunetan 100-dik gora; ta batez beste andik pasiak 200-dik gora izan ziran. Baiñan batzarra bera ez zan, gero, emen asi; aspaldi Euskaltzaindiak egiñak zituan elkartze hau gertatzeko behar ziran zenbait lan: 1) *lehen, batzorde bat osatzeko gizonak aukeratu ziran, gutxienez bi euskelki zekizkitenak izan ziren danak.* 2) *Gero, batasunari buruz bibliografi bat egin zan, batzordeko bezela izentatutako bakoitzari bere gaietan ordurarte izan ziranak jakiñarazi zitzaizkion: ortografiari buruz lana gertatu behar zuanak, hontaz, eta iztegiari buruz egin behar zuanak beste ainbeste;* Arantzazun Euskaltzaindiak egindakoak ez ziran, ba, utsetik asitako lanak izan; *aurretik batasuna buruz egindako lan guziak ahaztu gabe, eta**

bestalde, egindakoak oiñarriztat artu ta gero, egiñak baik. 3) Batzordeko bakoitzak bere lana aurkeztu zuan.

— Hoiek ahal dira *Euskera* aldizkarian agertu diranak?

— *Bai. Ta honetaz, gaiñera, Arantzazun aurretik multikopiaz argitara ziren txosten hoiek batzartu ziran guziek jakikiñaren gaiñean egon zitezten.*

— Euskaltzaindiak buruz eta astiro egindako lana izan zan, beraz!

— *Bai, oso arretaz egiña izan zan dana. Euskaltzaindiaren 50 urterako eratu genduan batzar honek hori merezi zuan eta alaxe, bero-bero, aritu giñan lanean; neroni izan nintzan-eta batzorde horretako idazkaria; ala ere nik ez nuen iritzirik eman, erakundearen laguntzaille bezela egin nituan guziak.*

— Garbi dago orduan —esan nion San Martineri— *Campion-Broussainek orain 50 urte dala egin zuten lana baztertu gabe ta hortik gora jo zuala Euskaltzaindiak Arantzazun.*

— *Bai —erantzun zian San Martinek— eta Campionek esan zuan bezela, aditzaren batasuna lortzeko lanak izango dira zaillenak, bai, ta hori gerorako utzi genduan. Nola nahi, aditza dala-ta gero ere Campionek pentsatzen zuan bezela egin beharko zala uste izan dugu beti.*

— Ba dugu, ba, lanari garbi nondik ekiña; aurren-aurrena, *ortografia*: zergatik ez dugu auzi hau lehen eta betiko erabakitzen?

— *Bai, baiñan, badakizu —esan ziran Lekuona jaunak bezela San Martinek ere— h or dago ordea!*

— *Bai —esan nion— askotan arazo txikiak, eta seta dala-ta, izaten dira mintsuenak; eta min-eragozpen hau teknika-eragozpena baiño zaillagoa izatera iritxi diteke, nere ustez iritxi dan bezela; ala, lehen auzi hau erabaki behar dalakoan nago ni; begira ezaiozu gure gaurko egoerari, ta*

ainbeste *behar* dugun batasun abiada hau *h* batek geldituta, lotua, geratuko ote da?

— *Ez luke ala behar, baiñan ementxe dago gaurko gure koxka zailena.*

— Zu *h*-ren aldekoa; zergatik?

— *Ni ez naiz h-ren alde edo aurkakoa; nik ez dut h-rik berandu arte erabilli; ez baitut txikitandik h-rik jaso; ala ere, gure mugaz auzko anaiak badute, ta emen ere idazten duten askok darabilkite; ta batasuna behar ba dugu, batek edo besteak amor eman beharko.*

— Don Manuel Lekuonak esaten ziran ber-bera galde-esango dizut nik ere: zergatik ez dute *h* darabilkitenak berak letra hori utzi nahi?

— *Ez litzazke legezko izango —esan ziran San Martinek—; aiek, 1964-an, konsonante ondorengoak utzi zituzten, eta gure ortografia artu (ordurarte ez zuten erabilli tx, x eta horrelekorik!), guk beren h hori berak derrigorrezko behar zuten tokietan eta itzetan erabiltzearen trukez.*

— Arrazoi bat da hauxe.

— *Bestalde —jarraitu zuan San Martinek— pronuntziatzen dutenaz ezin utzia dutelako da berak gorde nahi duten h hau; ta 1964-tik onera iru aldiz egin dira batasunari buruz billerak, billera nagusiak, antolatzeako deiak: Baionan 1964-an, 1968-an Ermun eta Arantzazun; iru billera nagusi hoietan joeran berdiñeko iritziak nagusitu ziren, eta batasuna nahi dugunok jarraitu beharko. H-ren aurkako iritziak beti agertu dire urriak h-ren aldekoen ondoan. Bestetik, Mitxelenak ainbeste izkuntza jakiteaz gaiñera, beste iñork ez bestean ezagutzen ditu euskeraren euskelkiak, eta bere asmoak garbi erakutsi dizkigu. Ta, gaiñera, gure erriak, gutxi edo asko, h erabiltzen du. Euskera (Igo urtea, Igo zenbakia, 1920, 64—rren orrialdean) aldizkariak agertu zuan euskeraren abezedarioa, eta h ere or dago; ez du esa-*

ten angoentzat edo emengoentzat dagoen, baiñan or dago. Baiñan hori bai, aitortu beharra dago; beti izan dala h-ren aurkako seta hori; arrazoiz berdiñak ez direnak, baiñan goiburuz seta hori dutenak asko dira.

— Ala da; baiñan batetik eta bestetik ere ageri da seta hori —esan nion San Martineri— aitortu behar dugu danok hau.

— *Baliteke ala izatea; baiñan Orixe aitatzten dute batzuek beren h-ren aurkako oiñarri sendo bat jartzeko asmoetan; baiñan nik galdetzen dut: zein Orixe? Neri (Zirikadak argitaratu eta gero) beti eirbartarrez idatzi behar nuela Karmel aldizkarian (iraila-urrilla, 1960) esan zirana, edo Itxu mutilla bizkaieraz egin zuana, Aitorkizunak gipuzkeraz idatzi zuana, Barren muiñetan lapurdieraz (eta gaiñera h-rekin) egin zuana, ala Euskaldunak napar izkuntzan idatzi zuana? Zein Orixe? Euskaldunak-en itzaurrean euskera baturako nafarrera eskatzen duana? Baiñan bere jarraitzaille diran gipuzkoarrak hori ez dutela nahi agirian dago; ez hori, ta ez Azkueren «gipuzkera osotua» ere, zeren argi dago dut ere ez dutela artu nahi det-en orde. Eta horrelako txikikeri batean amor eman ezin dutenak ez dute bestee-tarako amor emango.*

— Edo bai; seta kalte ta onagarri hau utzi beharko dugu.

— *Ala behar genduke, zentzurik bagenduke —esan ziran San Martinek.*

— Euskaltzaindia da, nere ustez, zentzuz artu behar dugun bide bakarra.

— *Ortan naiz aspaldi —esan ziran.*

— Orain atera berri-berria dan Euskera aldizkarian Euskaltzaindiak erakusten dituan bideak jarraitzen asiko bageña, ondo ahal legoke?

— *Bai ba —erantzun ziran.*

— Zergatik ez dugu orain arte egin dan lan orretatik

maillatxo bat artzen; esate baterako: ortografia ta iztegia (biak elkarrekin dijoazelako) ta gero zabalkunde berezi bat egiten (batere ikastola-liburu, izparringi, alfabetatze lan guzietan)? —galdetu nion.

— *Ni irizkide natzaizu.*

— Uste ahal duzu *Zeruko Argiak* lehen-maillako neurri hau artu ta aurrera eramango balu ongille izango litzakela?

— *Bai.*

— Utzi ditzagun oraindik aditza (batez ere) eta beste zailtasun batzuek, eta asi gaitezen, orduan, itzak batasunera-ko lehengo iztegi hortakoak erabiltzen, eta Euskaltzaindiak esan bezela demostratiboetan eta bi bokalen artean *h* jar-tzen: hau egiten ba dugu aurrera bidean abiatuak gera — esan nion.

— *Alaxe da. Bi bokalen erdian, diptongo ez diranean, bi silabetan eten behar diranean, eta demostratibuen asieraz, gutxienez. Erdi-bide batera jo nahi ba dugu beintzat.*

— Zer diozu «gutxienez»? —esan nion nere karga ta guzti.

— *Ba ondo legokeala.*

— Ala behar; ezin baitugu gaur *hau* eskatu, *lortu ahal du-gun hau* eskatu, ta gero emendik *gora* jo; ala balitz, bes-taldekoak ere emendik *bera* joko luteke, ta lengoan giñake berriz. Seriotasunean joka behar dugu danok baliozko ezer egingo badugu.

— *Ala da.*

— Ta emen dijoa garrantzitsuena iruditzen zaitena: Lafitte-Mitxeleneak emandako 2.000 itzetako iztegi horretan, zuk esandako (ta uste dut Don Manuel Lekuonak ere onartu-ko luken) *minimo* honera errenditzeko, jarritako *h* batzuek kendu beharko liralakela. Hauxe da entzun nahiko nukea-na; erdi-bide batean arkitu ahal izango baitugu neurria. Neurri honetatik gorako *h* hoiek gure izkuntza gaur ge-hien erabiltzen dan erriaren euskera geitxo zailduko luke;

agerian da hori; gaurko egoeran batez ere; ta gehiegikeri horrek *h*-ren aurka dagoen asko gogortzen du.

— *Danok eman behar dugu amor —esan ziran San Martin-ek— hortan naiz ni, ta zuzentzeak, bai batetik eta bai bes-
tetik zuzentzeak, ondo ikusten ditut; ala ere ni ez naiz iñor,
noski, Mitxelena ta Lafittek egindako lan hau nola zuzen-
du behar dan esateko. Nola nahi, batasun osoak bide lu-
zea artuko digu; lehengo bidetxurrak hoiek dira; bide hoiek
zuzentzen eta ibiltzen asi gaitezen, arren. Elkar amor eman
dezagun. Eta lenengo mailla hontan ematen ba dugu, ge-
roko bideak ere asko erreztuko zaizkigu. Baiñan asi, ta asi
ez direnak beude isilik.*

Ba dira itzez eta eskutitzez elkar-izketa hoiek dirala-
-ta, beren arrazoiak ematen asi zaizkidanak; sei-zortzi elkar-
-izketa hoiek agertu arte itxaron dezagun; danak bukatzen
diranean, iritzi nagusiekin kuadro bat egiteko asmoa dut;
hor ikusiko ditugu *h*-ren aldeko ta aurkako arrazoi nagu-
siak. Andik aurrera irakurleen asmoak jasotzen asiko naiz,
eta hoiekin ere ondorengo laburpen bat eman ahal izango
dut. Uler-erreza den sintesi batera iritxi ahal ba dugu, auzi
hau pixka bat erreztuko zaigulakoan nago. Hauxe da lan
hioen elburua beintzat.

(ZERUKO ARGIA, 1970)